

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

346 - 2026ko MAIATZA

BASERRITIK SORTZEN



UDABERRIAREKIN BATERA, MENDIALDEKO AZOKA IBILTARIA GUREAN DA

2026an Mendialdeko Azoka Ibiltariaren 7. Edizioa izango dugu. Apirilaren 19an izan zuen lehen geldialdia Araitzen (Arriben), *Artzain Usadioak* egunarekin batera.

Badira urte batzuk jada Azoka antolatzen dugula, Mendialdeko Elikadura Mahaiak bultzatuta, Plazaola Partzuergo Turistikoak eta Cederna Garalurreko Elikadura Dinamizatzaileak koordinatuta, eta udalekin eta

beste zenbait eragilerekin batera antolatuta.

Azokaren helburua eskualdeko ekoizle eta produktuei ikusgarritasuna ematea eta salmenta-gune bat eskaintzea da, baita salmenta zuzena eta merkaturatze bide laburrak sustatzea ere. Beraz, azoketara gerturatzeraz, ekintzetan parte hartzeraz, eta zonaldeko produktuak erosi, dastatu eta gozatzera animatu nahi dugu jendea.



2



Hiru saski banatu ditu Mailopek bazkideen artean



Mailope aldizkaritik zorionak eman nahi dizkiegu gosaltzeko produktuekin osaturiko hiru saskien irabazleei: Itziar Egidazu Ugaldere, Irati Garciarena Legarrari eta Francisco Javier Otermin Huarteri.

Zorionak, hirukote! Ziur gaude esnea, oloa eta zukuak gozatu dituzuela. Eta gainerako bazkideei... mila esker gure komunitatea partekatzeagatik.

Ez ahaztu urtero antolatzen ditugula halako zozketa bereziak bazkideentzat. Beraz, egin zaitetz bazkide gaur bertan eta izan zozketako hurrengo saritua!

Bazkide egin nahi baduzu, oso erraza da; bidali hurrengo datu hauek info@mailope.eus helbide elektronikora edo **660476041** Whatsapp zenbakira:

- ▶ **Izen-abizenak:**
- ▶ **Jaiotze data:**
- ▶ **NAN zenbakia:**
- ▶ **Helbidea:**
- ▶ **Telefonoa:**
- ▶ **Posta elektronikoa:**
- ▶ **Kontu Korrante zenbakia (IBAN barne):**

Agrozumos enpresak saskien zozketa babestu du. Mailopetik esker eman nahi dizkiegu eskainitako konfidantzagatik.



02

CEDERNA GARALUR

04

KUXKUXEAN Zorion agurrak

07

MAITE DITUT MAITE
"Uitziko mendien itzulia"

8

ELKARRIZKETA
"Baserria dugu elkargune eta mundua dugu begiradan"
Rafa Etxarri Azpirotz (Arruitz)



12

BATZARRE

14

ERREPORTAJEA
"Abizena ere euskaraz":
UEMAren kanpaina martxan da
Mikel, Olaia eta Lorea Uharte
(Baraibar)



18

KULTURA

28

PLAZATIK PLAZARA
Gorriti Araxes ikastetxean
Teresa Mariñelarena
(Beteluko Araxes ikastetxea).



31

AGENDA

- MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

- ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/maillopealdizkaria

- ERREDAKZIOA:

Ainhoa Beraza, Aitor Irastortza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandezena eta Xanti Begiristain.

- ARGAZKIAK:

Asier Elizalde, Arantxa Azpiroz, Eñaut Lasarte, Jon Eskudero, Jone Gabari, Maixabel Huarte, Juan Antonio Garaikoetxea, Iker Uruga eta Lontxo Zubillaga.

- PUBLIZITATEA:

Irati Moreno - 660 476 041

info@maillope.eus

- TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Ane Etxeberria Arguiñarena

Maiatzaren 22an, 9 urte.
Zorionak, Ane! Zeinen azkar pasatzen den denbora!
Egun bikaina pasa dezazula opa dizugu
Enekok, aitak, amak eta familia guztiak!

**Leonardo San Sebastián Velilla**

Apirilaren 29an, 8 urte.
Zorionak, Leo!
Beste poztasun urte bat gure familian.
Asko maite zaitugu.

**Amets Urkola Estanga**

Maiatzaren 16an, 7 urte.
Zorionak, Amets. Asko matte zaitugu.
Musu bana Xua, amatxo, atte, izeba, osaba eta atton-amonen partez.

**Alaia Jimenez Lizarraga**

Maiatzaren 19an, 2 urte.
Zorionak, maitia! 2 urte iada!
Asko disfrutatu zure egunaz, Txispita!
Musu eta besarkada erraldoi bat etxekoan partez.
Maite zaitugu.

Mailope aldikaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatz iezaguzu info@mailope.eus helbide elektronikora,
edo WhatsApp bidez **660 476 041** telefonora hilaren
15a baino lehen.



Lagunasesoria S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com



TORTURAREN INGURUKO ZIKLO BAT ABIATUKO DUTE MENDIALDEAN

Nafarroako Torturatuen Sareak eta Egia-ri Zor elkarteak azken hamardaketako inpunitatearekin amaitzeko eta tortura pairatu duten herritarrei aitortza egiteko hiru ekimeneko zikloa abiatuko dute.

Azken hamarkadetan Mendialdean 50 tortura kasu baino gehiago identifikatu dituztela adierazi dute eta herritar orori dei egin diote antolatutako ekintzetan parte hartzeko.

Maiatzaren 15ean, 19:00etan Larraungo Gabari Gune Irekian: 'Arg(h)itzen' dokumentalaren emanaldia izango da. Maiatzaren 22an, arratsaldeko 18:30ean Leitzako udaletxean "Tortura: begirada historiko eta judiziala" solasaldia Amaia Izko abokatuaren eta Iñaki Egaña historialariaren eskutik. Eta hirugarrenik, aitortza ekitaldia egingo da maiatzaren 31ean, eguerdiko 12:00etan Leitzako Herri Aretoan, "Minek ez gaitzabela lotu, jarrai dezagun hegan" izenburupean.



BERRIKUNTZAK MENDUKILO LEIZEAN

2026ko martxoaren 30ean amaitu zen zuntz optikoko, sentsorizazio biokimikoko eta radonaren neurketarako sarearen instalazioa. Proiektua Europar Batasunak finantzatu du, Next Generation EU funtsen bidez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) barruan.

Halaber, apirilean, harrera-gunean berritze-lan txikiak hasi zituzten eta horrek zenbait aldaketa sortu zituen. Behin-behinean, sarreraren salmenta eta oroigarri denda modulu batean kokatu zituzten eta komunak beste modulu batean.

Horretaz gain, bisita gidatuak normaltasunez egin dituzte, ohiko ordutegietan. Bertakoan langileak prest egon baitira bisitariei arreta eskaintzeko eta sortzen diren zalantzak argitzeko.



ETXEBITZAK SUSTATZEKO BILERA ANTOLATU DU BETELUKO UDALAK

Beteluko Udalak lehen 15 etxebizitza sortzeko hiru proiektu landu ditu, herrian bizi nahi duten gazteei aukera ezberdinak eskaintzeko. Hala, bi baserri zahar berri eta Zigari elkartearen gainean etxebizitzak eraikitzeko proposamena luzatu dute.

Dagoeneko eraikuntzen kostuak aztertu dituzte eta 50-85 metro karratu inguruko egoitzak salgai eskaintzea aurreikusi dute. Hala, apirilaren 10ean proposamenak aurkezteko bilera egin zuten. Bertan, Araitx eta Beteluko Etxebizitza Taldearekin elkartu ziren eta aurreproiektua, ideiak eta prezioak aztertu zituzten, besteak beste.

Gauzak horrela, aurrerago batzarre ireki bat egingo dute, informazio guztia mahai gainean jartzeko.


► Aritz Eskudero Larralde (Errazkin)



Bi anaietan onena nor den galdetu zenidan, Aritz sarritan esan izan dut baina esan behar dizut berriz bertsoa hasi eta bukatzen kostu ohi zaigu hainbat aldiz hobe genuke biotako bat txukun antzekoa balitz.

Eta hurrengo lagunak ere afizio asko omen ehiza, arrantza, eta onddoak maiteak dituzu, Ruben sekretutxo bat jakin nahi nuke saskia betetzearren esadazu ba, onddoak biltzen noiz ta non ibiltzen zaren.

Doinua: Aditu laguna itsasoak. **Hurrengoa:** Ruben Saralegi Martinikorena (Errazkin).



Katixa Goldarazena Azpirotz (Arruiz).

IRITZIA

ETB1-EKO ZUZENTZAILEAK

Nik ez dut batere zalantzarik egiten, ETB1en izanen dituztela euskara zuzentzaile onak eta ugariak. Zenbat? Ideiarik ere ez! Baina, halaber, ez da gezurra ere, oraindik akats dezente entzuten direla ia-ia egunero.

Erraz ulertzen dut, lan handia eta konplikatuak izan daitekeela, esatari profesional guztiak jakinaren gainean edukitzea euskararen gai guztietan, batez ere, gazteenak eta hasiberrienak, baina, hala ere, pentsatzen dut, merezi duen kontua dela.

Era berean, ez dut inolako arazorik ere aitortzeko, azken urteotan, aurrerapen on eta handiak egin direla alor horretan ETB1en, baina, hala eta guztiz ere, uste dut, ezin dela ukatu, behin baino gehiagotan -gehiegitan pasatzen direla akats astun batzuk, gehienetan, gainera, hutsegite berberak izaten direnak, esate baterako, "dagokionez" eta "dagokionean" nahastea, "entrenatzen da" eta "entrenatzen du" ongi ez bereiztea, "hauteskundeak egin" eta "hauteskundeak ospatu" berdinak balira

bezala esatea, "jokatu" eta "jolastu" aditzei tratamendu bera ematea, "bera" eta "berdina" ez desberdintzea, "honaino" esan beharrean "hona arte" esatea eta abar, eta abar. Hauek guztiak, adibide gutxi batzuk baino ez aipatzeagatik.

Hemen adierazitako guztia, ez dadila izan inor desanimatzeko, baizik eta guztiz aurkakoa lortzeko, hau da, horretan aritzen diren pertsona guztiak, oraindik ardura eta ganora handiagoarekin jardun daitezten, eta, horrela emaitza hobekak eskuratzeko.

Gaur egun dauden baliabide zientifiko eta teknologiko guztiekin, tamalgarria litzateke, gero eta fruitu hobekoak ez erdiestea.

Xanti Begiristain Madotz.
Auritz, 2026-04-01.

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es


ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
📞 616 457 540
✉ construccionesganarbe@gmail.com

Hurrengoa:

Manex Saralegui Izaguirre (Betelu)



Iker Uraga Ruiz
(Oderitz)

maite ditut maite gure bazterrak

Uitziko mendien itzulia

Ibilbidea: zirkularra
Distantzia: 12,3 km
Desnibela: +665 m
Zailtasuna: ertaina



Zergatik aukeratu dut?

Pixka bat gogorra ematen badu ere, udan egiteko merezi duen ibilbidea da. Gure inguruko paisaia paregabeak ditugu ibilbide guztian zehar eta bertan Atume mendiarekin bukatuko dugu, nire Larraungo txokorik gogokoena.

Bertan panoramika zoragarria izango dugu Malloak, Ireber eta Lekunberri ikusteko aukerarekin, besteak beste. Egun eguzkitsu batean Pirinioak ere ikusteko aukera izango dugu.

Bidea:

- 1 Itzulia Uitziko errepide ondoko iturrian hasiko dugu. Eta gure lehenengo pausua Uitziko gainera (1.2) igotzea izango da. Horretarako 1.1 argazkiko pista jarraituko dugu.
- 2 1.2 argazkiko bidea jarraitu eta Guratzera igoko gara.
- 3 Guratzera iritsi eta Malloak parez pare izanda, aurrean daukagun pista hartuko dugu. 3. argazkiko gurutzerara iristean ezkerreko bidea jarraitu egingo dugu. Hesi bat agertuko zaigu eskuinaldean, hesia jarraitu eta errepide batera iritsiko gara.
- 4 Errepidea gurutzatu eta zuzen jarraitu beharko dugu hesi bat topatu arte. Salto egin eta eskuinera egingo dugu bira zementuzko pista batera iritsi arte. (Borda baten ezkerretatik pasako gara)
- 5 Pistara iristean ezkerretan egingo dugu. Ondoren, pista jarraitu eta hesi bat topatzerakoan, salto egin eta hesia jarraitu beharko dugu, beste salto bat egin arte. Geroztik aurrera erreza da. Hesia ezkerretan izanda bere noranzkoa jarraituko dugu Atumeraino. (Ollarradar, Mergelu eta Epele gailurrak igaroko ditugu bidean)
- 6 Azkenik Uitzira jaistea faltako zaigu. Horretarako hesi berdina jarraitu eta zementuzko pista bat ikustean beregana abiatu. Pista ezkerretara jarraitu eta herrira iritsiko gara.

*Ibilbidea Wikiloc web-orrialdean ikusi nahi baduzu, bilatu hurrengo izenburua: UITZIKO MENDIEN ITZULIA

“Baserria dugu elkargune eta mundua dugu begiradan”



Rafa Etxarri Azpirotz.

“Artista autodidakta beterrano bat naizela esango nuke”

Artearekin lotutako formakuntzarik izan duzu?

Hasieran, sormenarekin lotuta, arkitektura ikasten hasi nintzen, baina gero, utzi egin nuen. Ondoren, profesionalki diseinuaren munduan aritu naiz urte batzuetan, eta hainbat ikastaro ere egin ditut. Hala ere, gehien lagundu nauena autoformazioa izan da, eta urteek ematen duten perspektiba da, azken batean, eskaini dezakedan balio nagusietako bat.

Nolakoa izan da zure ibilbide artistikoa?

Orain dela 30 urte hasi nintzen sortzen, nahiz eta betidanik izan dudana zaletasuna. Egia esan, denbora luzez nire kabuz aritu naiz, gauza handirik egin gabe; duela hiru-lau urte hasi nintzen erakusketak egiten, modu xumean eta tokiko espazioetan.

“Orain dela 30 urte hasi nintzen sortzen”

Azken erakusketa Hernanin izan zen, Biteri Kultur Etxean, ekaina eta uztaila bitartean. Ordutik, konturatu naiz erakusketak egiteko mugitu egin behar dela eta kanpora irten. Hala ere, proiektu berrien bila ibili beharrez, batez ere sortzen aritu naiz; azkenean, hau ez da nire lanbidea, afizioa baizik, eta ordu asko eskatzen ditu.

Hilabete honetan berriro izango dut erakusketa Irurtzungo Pikuxar Euskal Txokoan, duela hiru urte egin bainuen, eraikin zaharrez. Maiatzaren lehen astetik aurrera egongo da ikusgai, hilabete inguru. Aldi berean, udazkenara begira beste aukera batzuk aztertzen ari naiz, ahal bada beste sortzaile batzuekin elkarlanean, idazleekin besteak beste.

Apirilaren 18an, Rafa Etxarri Azpirotzek “Ezkatzea” erakusketa gune berria eta “Kolorea gara” margolanak aurkeztu zituen Arruizko Juansarenea baserrian. Ekitaldian gertuko giro bikaina nagusitu zen eta jende ugari joan zen: senideak, lagunak, herritarrak eta hainbat sortzaile, besteak beste.

Kolorez eta espresioz betetako artelan ederrak ikusteko aukera paregabea izan zen. Halaber, Etxarrik hitz eder batzuk eskaini zituen eta proiektuaren nondik norakoak azaldu zituen. Hala nola, Ezkatzea izenak baserriaren sarrerako espazio tradizionalari egiten dio erreferentzia, eta arte garaikiderako eta sorkuntzarako topagune irekia bihurtzea da helburu nagusietako bat.

Nola aurkeztuko zenute zure burua artista gisa?

Artista autodidakta beterrano bat naizela esango nuke. Nire estiloari dagokionez, librea da: barrutik ateratzen den espresioa, erabat askea. Estiloa kokatzerakoan badugu dena etiketatzeko joera; horren barruan, agian abstrakzioaren eta figurazioaren artean kokatuko nuke. Sortzen

ditudan lanak, batez ere, koloretsuak dira, eta hori da ezaugarri nagusia. Kolore hori izaera edo asmo batekin lotuta dago; azken finean, artea komunikazio ariketa bat da, eta irudi edo ideia baikor bat proiektatzeko modua. Etorkizunera begiratzen duen ikuspegia da, aniztasunarekin lotzen dena, gaur egun beharrezkoa den zerbait.

Zer da Ezkatzea proiektua?

Ezkatzea izena aukeratzeko, askotan izaten den kanpoko edo modernoago diren hitzetara jotzeko tentazioari uko egin nahi izan nion, eta bertako hitzek duten indarra mantentzea interesgarriagoa iruditu zitzaidan. Kasu honetan, gainera, nire ideiarekin oso ongi lotzen da: gurean "ezkatzea" esaten diogu, eta beste toki batzuetan "ezkaratza" deitzen zaio, hau da, baserriaren sarrerako espazioari. Azkenean, hori da erakusketa gune honek eskaini nahi duena: harrera tokia, ideiak eta proposamenak jasotzeko lekua.

Proiektua ez zen agian hausnarketa sakon baten ondorioz sortu; batzuetan, gauzak bat-batean iristen dira.

Hasieran espazio xume baina atsegin bat nuen, ez handiegia, baina ezta txikia ere, eta margolan asko pilatuta nituen. Horiekin zer egin pentsatzen hasi, eta hortik sortu zen ideia.

Egia esan, proiektua aspalditik osatuta dago, iazko udazkenetik, baina aurkezpen publikoa atzeratzen joan da. Azkenean, udaberriaren bultzadarekin, aurten eman diogu hasiera ofiziala.

Non kokatzen da gune irekia?

Ezkatzea gune irekia Juansarenea baserriaren sarreran kokatzen da. Edonork parte hartu dezake bertan; interesa duenak nirekin harremanetan jar daiteke, eta gustura aztertuko genuke proposamena. Bai aurkezpen egunean, bai beste edozein momentutan, atek zabalik egongo dira.



Etxarrik tenperaz paper gainean margotutako lan koloretsuak.



Ezkatzea erakusketa gune berriaren aurkezpena.

"Ezkatzea gune irekia Juansarenea baserriaren sarreran kokatzen da"

Pausoz pauso sortutako proiektua da. Momentuz nire lanak egongo dira ikusgai, tenperaz paper gainean

margotutako margolan koloretsuak, "Kolora gara" lelopean izendatu ditudanak; baserritik ikusita mundu globalaren ikuspegi berezia eskaintzen dituzten sorkuntzak. Hala ere, asmoa da gune irekia izatea, beste sortzaileek ere beren proposamenak aurkezteko aukera izan dezaten. Espazioa xumea da, baina egokituta





“Une honetan nire lanak biltzen baditu ere, gune irekia da”

Nolabait esanda, baserria elkargune bihurtu nahi dut, eta mundua begiradan jarri. Horrez gain, baserriaren esentzia bera ere azpimarratu nahi dut: apaltasuna, sinpletasuna eta pertsonen berotasuna.

Amaitzeko, atek zabalik daude; nahi duenak Ezkatz(e)a gune irekita etortzeko aukera du, edo interesa izanez gero, nirekin harremanetan jar daiteke info@koloreak.com helbide elektronikora idatziz.

Areto xumea da, baina hemendik aurrera ordutegi bat eta prozedura bat izango ditu, oraindik zehaztu ez duguna, baina laster argituko duguna. Jakinaraziko dugu nola izango den.

dago bai margolanak bai eskulturak erakusteko.

Edonork interesa badu, elkarrekin aztertuko genuke zer aukera dauden eta nola eman forma proiektuari. Jakitun gara halako ekimenek denbora eta lanketa eskatzen dutela, baina une honetan gunea erabiltzeko prest dago.

da, tradizioa eta etorkizuna lotzen dituena. Izan ere, baserri bat da oinarria —250 urteko eraikina—, izaera zaharra eta tradizioa biltzen dituena, baina aldi berean, bere barruan arte garaikidea eta proposamen berriak gorde eta partekatu nahi dituena.

Une honetan nire lanak biltzen baditu ere, gune irekia da, beste edozein sortzailek ere bere proposamenak aurkezteko aukera du. Helburua da egungo munduan dauden eztabaidak, ikuspegiak eta irakurketak gure herri txikietara ekartzea, eta, aldi berean, hemendik mundua interpretatzeko aukera ematea. Izan ere, askotan kanpoko —batez ere hiri munduko— joeren atzetik ibili gara, eta nik uste dut hemendik ere badagoela munduari begiratzeko eta gure ikuspegia emateko aukera.

“Jakitun gara halako ekimenek denbora eta lanketa eskatzen dutela”

Zer kontatu nahi duzu Ezkatzea proiektuarekin?

Ezkatzeak, batez ere, harrera tokia izan nahi du: ideiak, sorkuntza eta proposamenak —berriak zein zaharrak— elkartzen diren gunea. Kultura eta artea uztartzeko espazioa



URZUBI S.A.
GASSÓ
Tel. 948 504 241
urzubi@hotmail.com
LEKUNBERRI



TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxe: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com


SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com


ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34



Urte gutxi barru, **GERTA DAITEKE**,
Nafarroako Zainzuriak nahi badituzu
zuk zeure garajea landu behar izatea

ZURE ESKU DAGO HORI EZ GERTATZEA
ZURE EROSKETAN, AUKERATU NAFARROA

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030



NAVARRA † NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua



▶ **ARAITZ-BETELUKO EGUNA MAIATZAREN 30EAN IZANGO DA**

Lehen, Araitz-Beteluko Eguna abenduan ospatzen zuten herritarrek, Aste Kulturalean. Aurten, ordea, egitasmoa indartu nahi izan dute eta maiatzaren 30ean, larunbatean, izango da.

Eguraldi ona bada, ekitaldia Arribe-Atalluko plazan egingo da, eta bestela, frontoian. Halaber, antolakuntzak jakinarazi duenez, boluntarioak behar dira kozinatzeko, zerbitzatzeko eta barran txandak egiteko. Horregatik, herritarrek parte hartzerantz animatu nahi dituzte, eta herriko saltokietan izen-emate zerrendak eskuragarri jarriko dituzte.

*Ikusi egitaraua kontrazalean.



▶ **'GEURETIK SORTUAK' ERAKUSKETA ESKAINI DUTE BETELUKO UDALETXEAN**

Apirilaren 9tik, hilaren 19ra arte, Beteluko Udaletxeko patioa kulturarekin bat egiteko gune bihurtu da, literatura, antzerki eta zinemaren euskal sortzaileei eskainitako doako erakusketa bati esker. Bisitariak aukera izan zuten diziplina desberdinetako lanak ezagutzeko, sormenaren aniztasuna eta euskal kulturaren indarra gertutik bizitzeko.

Beraz, aukera paregabea da talentua deskubritzeko, hausnartzeko, gozatzeko eta kulturaz blaitutako esperientzia aberasgarria bizitzeko.

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO DEIA EGIN DUTE

UEMAk eta Araitz, Larraun eta Lekunberriko udalek errenta aitortpena euskaraz egiteko deia egin dute.

Apirilaren 9an hasiko da Nafarroan 2025eko errenta eta ondarearen gaineko aitortpena egiteko kanpaina. Horren harira, UEMAk eta Udalek dei egiten diete herritarrei ogasunarekiko harremanetan euskararen aldeko hautua egin eta errenta aitortpena euskaraz egitera.

Apirilaren 9tik aurrera ekainaren 25era bitartean martxan izanen den kanpaina honetan, herritarrek errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera dute, eta hori gauzatzeko erraza da: Internet bidez, telefonoz, aholkularitza bulegoetan edo finantza entitateetan aitortpena euskaraz egin nahi dela adierazi besterik ez dugu behar.

Kanpainari buruzko informazio gehiago: <https://labur.eus/prgspdn>





UITZIKO SANTA ENGRAZIREN ERROMERIA GIRO EDERRAN OSPATU DUTE

Apirilaren 16an, Santa Engrazia egunean, meza ospatu zen Uitziko basilizan, eta ohiko giro herrikoa izan zen.

Apirilaren 19an, erromeria nagusia egin zen. Herritarrek eguraldi bikaina lagun izan zuten, eta urtero bezala, jende ugari hurbildu zen; batez ere Lekunberri, Leitza eta inguruko herrietatik.

12:00etan Meza Nagusia ospatu zen, ondoren erlikiaren agurtza egin zen eta goiza biribiltzeko, Uitziko herritarrek otordutxo bikaina eskaini zuten.

ULTZAMA ETA LARRAUNGO AEK-K DOAKO EUSKARA SAIO BAT ESKAINI DU LKUNBERRIN

24. Korrika igaro eta 12 egun geroago, Ultzama eta Larraungo AEK-k euskara ezagutu edo ikasten hasi nahi dutenentzat doako klase bat antolatu zuen Lekunberriko esukaltegian, euskara gertutik ezagutzeko aukera emateko.

Saioa apirilaren 22an egin zen, Larraungo AEKren egoitzan (Artzanegi 6, Lekunberri), eta parte-hartzaileek bi ordutegiren artean aukeratu ahal izan zuten: 11:00etatik 12:00etara edo 17:00etatik 18:00etara.

Ekimen horren helburua euskara ikasteko interesa duten pertsonak animatzea izan zen, eta hizkuntzara lehen hurbilketa erraza eta atsegina eskaini zuten. Horretarako, saio ireki euskararen ikasketa-prozesua ezagutzeko aukera izan zuten.



LEKUNBERRI NAFARROAKO HELMUGA GOGOKOENETAKO BAT BILAKATU DA ASTE SANTUAN

Aste Santuan, Lekunberriko kaleak jendez bete ziren; natura, kirola eta familian egiteko planak uztartzen dituen helmuga gisa sendotu baita.

Halaber, Aste Santuan Beigorri abentura-parkeak, zikloturismo zerbitzuak, Plazaolako bide berdeak, Mendukiloko kobazuloak eta inguruko ondareak, besteak beste, bisitariei jarduera ugari egiteko aukera eskaini dizkiete.

Lekunberriko Udalak nabarmendu duenez, udalerria Nafarroako ihesaldi eta oporretarako erreferentziatzko helmuga gisa sendotzen jarraitzea da helburua, eta bertako ingurune naturala, jardueren eskaintza eta lurraldeko agente turistikoekiko lankidetzaz azpimarratu ditu.



●● Mikel, Olaia eta Lorea Uharte (Baraibar).

“Abizena ere euskaraz”: UEMAren kanpaina martxan da



Mikel, Olaia eta Lorea Uharte Aralar Irratian.

14

Abizenaren grafia aldatzeko kanpaina abian da. Historian zehar gaztelaniara moldatutako euskal abizenak berriro ere jatorrizko grafiara itzultzea eta herritarren artean kontzientzia piztea izan dira UEMAko kanpainaren bi helburu nagusiak.

Euskal abizen ezagunek ibilbide luzea egin dute hainbat aldaketa eta inposizioa bizi ostean. Testuinguru horretan, Uharte, Larraungo familia da adibide esanguratsuetako bat, eta haien esperientzia erdigune izan da kanpainaren inguruko gogoeta zabaltzeko.

Mikel, Olaia eta Lorea Uhartek –aita eta alabek– duela hiru urte erabaki zuten haien abizenaren grafia aldatzea, etxeko gazteenek 18 urte bete aurretik. Horrela, jatorriz “Huarte” abizena, “Uharte” idaztera aldatu zuten.

Prozesuaren hasieran zalantzak izan arren, gaur egun erabakia harro eta modu positiboan bizi dute. Aldaketa hura, administrazio kontu bat izatetik urrun, hizkuntza, identitatea eta kulturarekiko atxikimendua ere azpimarratzen dituen erabakia izan zen.

XIX. mendetik aurrera, Espainiako administrazioak erregistro zibila eta dokumentazio ofiziala gaztelaniaz estandarizatzen hasi zen. Horren ondorioz, euskal abizen asko gazte-

laniara moldatu ziren, sarritan idazkera aldatuta. Gaur egun, ordea, gero eta gehiago dira jatorrizko grafiara itzultzeko pausoa ematen ari diren herritarrak, nahiz eta oraindik askok

ez dakiten nola egin edo zein bide jarraitu behar duten.

Testuinguru horretan kokatzen da “Abizena ere euskaraz” kanpaina, Udalerri Euskaldunen Mankomu-

nitateak (UEMA) bultzatua. Ekimen horren adibide argietako bat, Uharte familia izan da: Mikel, Olaia, Lorea eta Maddi Uharte aita-alabak duela gutxi euren abizena ofizialki euskaratu zuten.

Lehenengo pausoak eta erabakiak

Lorea Uharteren hitzetan, abizena aldatzeko erabakia ez zuten egun batetik bestera hartu; etxean aspalditik zetorren ideia baitzen: “Gure aitak aspaldi esan zigun abizena aldatu beharko genukeela, eta azkenean, 18 urte bete aurretik erabaki genuen pausoa hura ematea, kudeaketa errazagoa izan zedin”. Alegia, abizenaren aldaketa adin nagusitasunera iritsi aurretik egiten bada, administrazio prozesua arinagoa da eta familia osoak batera egin dezake aldaketa.

“Gure aitak aspaldi esan zigun abizena aldatu beharko genukeela”


Lorea Uharte

Olaia Uharteren hitzetan: “Lehen, ‘Huarte’ zen, ‘H’ hasieran. Orain, ‘Uharte’ da, ‘H’ hura erdian”. Familiaren hitzetan, aldaketa horrek itxuraz xehea dirudien arren, sakonean

badu beste dimentsio bat; ez da grafia hutsa, hizkuntzarekiko eta jatorriarekiko lotura berreskuratzea baizik.

Hasierako prozesua, ordea, ez zen erraza izan. Olaia Uhartek gogoratu du hainbat zalantza sentitu zituztela: “Erabakia hartzea zaila izan zen, ez baikenuen euskararekiko ikuspuntu hura. Hasieran, pentsatzen genuen ikastetxeko zerrendetan atzera joango ginela, edo antzeko kontuak. Horri garrantzi handia ematen genion. Gainera, pena sentitzen genuen, txikitzen ikasten den lehen hitzetako bat abizena delako”. Beraz, eguneroko inertzia txikiek pisu handia zuten, baina denborarekin ikuspegia aldatu zen.

Lorea Uhartek adierazi duenez: “Orain zerrendak ez du axola, euskarak, bai”. Mikel Uharteren hitzetan: “Hasierako ‘H’ hura ikustera ohitu nintzen, baina egun, ‘Uharte’ abizena modu naturalean ikusten dut. Gustura nago hartutako erabakiarekin”. Beraz, Uharte familiaren arabera, lehenengo urratsa eman ostean, “administrazio prozesua egin behar da: udaletxera joan eta egoera azaldu, erregistro zibiletik ziurtagiria jaso, polizia joan eta azkenik NANA eta pasaporte berri. Ez da bereziki konplexua abizena aldatzea, baina argibideak ongi jarraitu behar dira”. Gainera, azpimarratu dute gaur egun sistemak nahiko ongi erantzuten duela: “Abizenaren aldaketa egin on-





BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.

Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

ARBEONDO

produktu ekologikoa

German Lasarte

HARATEGIA

Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL

gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

doren, administrazioan nahiko azkar islatzen da". Horrela, aldaketa nahiko azkar normalizatzen da, bai erakundeetan, bai dokumentu ofizialetan.

"Ez da bereziki konplexua abizena aldatzea"

"Abizenaren aldaketa egin ondoren, administrazioan nahiko azkar islatzen da"

Uharte familia

Beraz, oso erraza da egin beharrekoa, eta erroladatutako herriko udaletxean edo Erregistro Zibilean egin daiteke. Horretarako, hurrengo datu hauek beharrezkoak dira:

- ▶ Nortasun Agiriaren fotokopia.
- ▶ Jaiotza ziurtagiria. Erregistratuta zauden herriko udaletxean edo epaitegian eskatu behar da.
- ▶ Errola agiria. Udaletxean eskatzen da. Baita online ere.
- ▶ Familia liburua. Seme-alabarik izanez gero edo ezkondata gonez gero.

Abizena aldatu nahi denean sortzen diren ohiko galderak

Ohiko galderei dagokienez, abizena ezin da nahi den moduan berridatzi, epailearen irizpidea da. Normalean Euskaltzaindiaren irizpidea jarraitzen

da. Euskaltzaindiaren liburuan, adibidez, Muxika agertzen da, baina zenbait kasutan (Muxika, Mujika...) forma desberdinak onartu izan dira. Hala ere, abizen-aldaketa gisa izapidetu daiteke aldaketa eta, kasu horretan, Erregistroen eta Notarioen Zuzendaritza Nagusiak erabakitzen du aldaketa onartu edo ez.

Halaber, gurasoena aldatuta, 18 urtez azpiko seme-alaben abizena zuzenean aldatzen da. 18 urtez gorakoetan, Erregistroa joan eta adierazi egin behar dute beraiek ere aldatu nahi dutela, baina ez dute tramitazio guztia egin behar. Gainera, 18 urtez azpiko anai-arreba guztiak aldatu behar dute abizena derrigorrez, baina 18 urtez gorakoetan norberak erabakitzen du.

Behin aldatuta, epaitegiak, ofizioz, honako tokietara bidaltzen du: Udaleira, Hauteskunde Zentsura, Poliziaren eta Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusira... Hala ere, gero NANA berritzeko txanda hartu eta gero "hitzez hitzeko jaiotza agiria" eskuratu behar da dagokion erregistro edo epaitegian. Eskaera egiterakoan NANA berritzeko dela esan behar da, epaitegiak horretarako bakarrik balio duen agiria eman ahal izateko.

Eskatzaileak lehengo grafiarekin agiriei dagokienez, jaiotza, ezkontza eta seme-alaben jaiotza-agiritan aldaketa epaitegietan bertan bideratzen da, ofizioz, jaraunsletza edo herentzietan arazorik ez izateko. Gainontzeko kasuetan norberak ikusi behar du.



Epailearen baitan geratzen da ea gaztelaniaz diren abizenak aldatu daitezken euskal grafiara. Lehen esandako moduan, printzipioz, euskal abizenen kasuan, Euskaltzaindiaren "Deitura-izendegia" jarraitzen da. Bertan honakoa adierazten da: "Euskal deituratzat, edozein hizkuntz jatorritakoa izanda ere, Euskal Herrian sustatua dena jo da, nahiz esku artean duzun lehen liburuki honetan euskal jatorrikoak ez diren gehienak agertzen ez diren." Zalantza kasuan, onena Euskaltzaindiari galdetzea da. Edozein kasutan, lehen esandakoa, epailearen baitan geratzen da erabakia.

Esperientzia eta helburu nagusiak
Prozesuaren iraupenari dagokionez, Uharte familiaren esperientzia positiboa izan da. Mikel Uharteren arabera, prozesua uste baino azkarrago burutu zuten, "hilabete baten bueltan egin genuen, nahiz eta prozesuan akats txiki bat izan, dokumentu bat falta baitzen. Baina, oro har, uste genuena baino azkarragoa izan zen". Halaber, aldaketa ofiziala egin ostean, erakundeen egokitzapena arina izan zela azaldu dute.

Kanpainaren helburua, hortaz, herri-tarrak pausoa ematera animatzea eta euskal abizenak eguneroko erabileran berriro normalizatzea dira. Uharte familiaren hitzetan, "abizenaren grafia aldatzeko prozesua ez da hain zaila, eta etorkizunean eskertzen da".

"Abizenaren grafia aldatzeko prozesua ez da hain zaila"

Uharte familia



'Armen kontra, gure ahotsak': bakearen aldeko ikuskizun hunkigarria

Martxoaren 28an, 20:00etan, bakearen aldeko ikuskizun berezia egin zen Lekunberriko kiroldegian, *Armen kontra, gure ahotsak* izenburupean. Ekitaldiak herritarren harrera beroa jaso zuen eta ehunka lagun elkartu ziren.

Aralar Abesbatzako musikariek eta instrumentistek giro hunkigarria sortu zuten oholtza gainean. Hala, musikaren bidez, bakearen mezua lau haizetara zabaldu zen. Aldi berean, Lorena Arangoa eta Itziar Saenz de Ojer antzezleek, emanaldiari jarraipena eta umorea gehitu zioten, eta ikusleen arreta bereganatu zuten une oro. Horrela, argi, dirdira eta doinu ederren artean murgildu zen Lekunberriko kiroldegia.

Ikuskizunak zirraraz betetako uneak eskaini zituen, eta bertaratutakoek txalo zaparrada beroekin eskertu zuten egindako lana.



'Armen kontra, gure ahotsak' ikuskizunaren amaiera.

 <p>aseguru gintza XXI</p>	<p>ASEGURU AHOLKULARIAK</p> <p><i>Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da</i></p> <ul style="list-style-type: none"> ▶ aseguruak@aseguruak.eus ▶ 943 65 22 20 ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa 	 <p>HOSTAL BETELU</p> <p>Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak</p> <p>Erreserbak: 948 51 30 26 · 663 97 67 09</p>	 <p>ALIPROX Lekunberri <i>janaridenda</i></p> <p>hamabostaldiro eskaintza bereziak</p>
<p>Izarberri Bar-Restaurante</p>  <p>Dastatu gure pintxoak, ogitartekoak, bazkariak, menuak eta hanburgesak!</p> <p>Aralar 17, behea LEKUNBERRI</p>	<p>948 575 783</p>	<p>CONSULTORIO VETERINARIO, S.L. HIRUROK S. VETERINARIOS</p> <p>Telefono zenbakia eta faxa: 948 50 43 31 Lekunberri</p>	<p>OTXOTORENA okindegia</p> <p>ARRIBE</p> <p>ADI!! TLF BERRIA: 680 102 689</p> <p>MALLOAK ARTZAI GAZTAK</p> <p>Granja Martikano, GAITZA, Nafarroa Ib. 649 472 057 - Jaxuak. 660 511 057 Malloak.com info@malloak.com</p> <p>IDIAZABAL</p>

Txalapartaren doinua isildu ez dadin

Martxoaren 29an, I. Txalaparta Topaketa egin zen Gabari Gune Irekian. Eguna primeran hasteko, parte-hartzaileek Unanuko Iturburura joateko ibilaldia egin zuten. Bertan, Ondare Kultur Taldeko Juanjo Zubietak azalpen bikaina eskaini zuen. Ondoren, eguzkia, lainoak eta haize bortitza tartekatzen ziren bitartean, Gabarira itzuli ziren, eta han egin zen ekitaldi nagusia.

‘Odoletan daramat’ izeneko errezital familiarrarekin hasteko, Aratz Etxarri eta Unai Amoztegiak –10 urteko gaztetxoek– hasiera bikaina eman zuten. Ondoren, Lasarteko Ixabel eta Amaia Zuaznabar ahizpak igo ziren oholtzara; jarraian, Gasteizko Txema eta Yogui López anaiak (Txalazarata). Amaitzeko, hurrengo guraso eta seme-alabak aritu ziren: Astigarragako Aritz eta Adur Goikoe-txea, Lodosako Juan eta Jon Salanueva (Malkoa TX), Donostiako Ibon eta Amets Etxeberria (Etxeberria TX) eta Baigorriko Paxkal eta Mikel Indo. Bukaera hunkigarria izan zen, Mendian Gora abestiaren bertsio berezia eskaini baitzuten. Hala, azken hilabeteetan zendu diren txalapartariak omendu zituzten: Félix Cortazar, Josu Goiri, Patricio Mikeleiz Pato eta Fernando Langarika.

Egitasmoa Talka elkarteak antolatu zuen, Lekunberriko eta Larraungo udalen, Ondare Kultur Taldearen eta Txalapartarien Elkartearen laguntzarekin.

Horretaz gain, apirilaren 16an, instrumentuari buruzko saio berezia egin zuten. Ultzama-Larraungo AEK Euskaltegiko ikasleek parte hartu zuten ekimenean, eta herritarrek ere bertaratzeko eta parte hartzeko aukera izan zuten. Saioan, Jabi Leozek –proiektuaren sustatzaileak– Lekunberri kokatzen den txalaparta finkoa zer den azaldu zuen, eta ondoren, parte-hartzaileek txalaparta jotzeko aukera ere izan zuten.



I. Txalaparta Topaketa Gabari Gune Irekian.



Txalaparta finkoaren inguruko saio bereziko une bat.
Argazkia: Jone Gabari.



Herritarrek Lekunberriko Trinketeen.

Elkarrekin bazkaltzeko bildu dira eskualdeko kintoak

Gazteagoak nahiz helduagoak izan, belaunaldi ugaritako kideek urteroko topaketa egin dute, eta apirilaren 11n, 120 herritar inguruk bazkaldu zuten Lekunberriko trinketean, giro ederrean. Pintxo txapelketa eta “mojitada” goxoarekin hasi ziren, ondoren bazkaria, bingoa, Akapaie elektrotxaranga eta DJ Eneko & Izei musikariekin biribildu zuten eguna. Eguraldi goibela izan arren, primeran pasa zutela azpimarratu dute.

KOTXERA
Taberna • Jatetxea • Barra

948 50 43 52
kotxera13.com

Caserío Benta Zaharra,
Mugiro (Navarra)

Antsoenea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsoenea.com
Uztegi (Araitz)

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Antonio Carraro

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

Hirurogei lagun inguru elkartu ziren San Migelen lehenengo etapan

Apirilaren 5ean, Pazko egunez, San Migel Goiaingerua Aralartik atera zen Baraibarrera bidean. Eguraldi bikainak lagunduta, hirurogei lagun inguru bildu ziren mendiz ibilaldia egiteko.



San Migelen lehenengo etapa.
Argazkia: Maixabel Huarte Martija.

Beteluko Irakurle Taldea hileko azken asteazkenetan biltzen da

Beteluko herritarrek antolatuta, herriko Irakurle Taldearen bilerak egiten dituzte hileko azken asteazkenetan Beteluko Udaletxean.

Martxoan, Lucia Solla Sobralen "Comerás flores" liburuari buruz mintzatu ziren, eta apirilean, Karmele Mitxelenaren "Zoriona, edo antzeko zerbaít" liburuari buruzko solasaldia egin zuten. Gomendioak jaso eta iritziak partekatu nahi badituzu, ez galdu aukera.

ZORIONA,
EDO ANTZEKO
ZERBAIT
Karmele Mitxelena

Inigo Garaioa
MARGOLARIA



696 658 288
LEKUNBERRI

OGI-BERRI ALTZA

Aralar kalea, 41
Lekunberri



OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

TAXILON



Lontxo Otamendi
Artola

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

IORTIA CLÍNICA DENTAL - HORTZ KUTXEA



Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol. Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 661 769

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

**aitz
berri**



edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

ILE APAINDEGIA
ESTETIKA
PRESOTERAPIA
PODOLOGIA
LASER DEPILAZIOA ETA
DEPILAZIO ELEKTRIKOA
JENDE HELDUARENTZAT
ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA.
MIKROPIGMENTAZIOA
EZPAINETAN
MIKROBLADING
BEKAINETAN

@aitzberri

Arriben abiatu da Mendialdeko Azoka Ibiltaria

Datozen hilabeteetan, Mendialdeko herriak tokiko produktuen topagune bilakatuko dira, Mendialdeko Azoka Ibiltariaren edizio berria apirilaren 19an hasi baitzen, Arriben.

Urtez urte, azoka indartu egin da, eta gaur egun eskualdeko ekoizleen produktuen eta kulturaren aldeko ekimen garrantzitsua bihurtu da. Aurten, artzaintzari lotutako jarduerak protagonismo berezia izan zuten Arriben. Eskualdeko gazten lehiaketa eta dastaketa antolatu zituzten eta ohiko postuak ere izan ziren. Hala, bisitariek bertako ekoizpena gertutik ezagutzeko aukera izan zuten.

2020an sortu zenetik zazpigarren edizioa bete du ekimenak, eta Arribeko plazak hartu zituen ekoizle, bisitari eta artzaintzaren munduko zaleak.

Mendialdeko Gazta Lehiaketan guztira 15 gazta aurkeztu ziren, eta 60 pertsona baino gehiagok hartu zuten parte dastaketan eta ondorengo bozketan. Irabazlea Uztegi Antsoneako gazta urdina izan zen. Pellok jaso zuen txapela, Luis Zabala Atalluko artzainaren eskutik.

Bigarren postua, Leitzako Mirenek etxerako ekoizten duen Idiazabal ardi gaztak eskuratu zuen. Hirugarren postuan, berriez, Aresoko ahuntz gazta geratu zen.

Bestalde, Elorri elkartearen Igor Hernandez Ochoa gazta dastatzaile adituak gazta bat baloratzeko garaian kontuan izan beharreko ezaugarriak azaldu zizkien bertarartutakoei. Forma, testura, usaina eta zaporea baloratzen hasteko lehen zantzuak jaso zituzten ikastaroan.

Mendialdeko azokan ohikoa den moduan, azoka postu ezberdinez osatu zen. Elikagai postuak egon ziren: taloa, gazta, ezti, haragi-produktuak, hestebeteak, pateak, ogia, arrautzak eta olioak. Horiekin batera, tokiko artisauntza-postuak ere izan ziren, egur, zeramika, metal eta ehungintzako lanekin.

Hitzorduak tokiko produktu jasagarrien erakusleihoa eskaini zuen, kontsumo arduratsua sustatuz.

Azoka beste hainbat herritan ere egingo da: maiatzaren 17an Lekunberrin, ekainaren 28an Goldaritzen, irailaren 13an Leitzan eta urriaren 11n Areson. Ekimenak eskualdeko hainbat udalen lankidetzatza izan du, baita tokiko elkarte eta eragileen babesa ere.



Mendialdeko Azoka Ibiltaria.
Argazkiak: Arantxa Azpiroz.



Sentitu, pentsatu, egin: Gerrarik Ez!



Gazta lehiaketako irabazleak.



Gazta lehiaketa.



Igor Hernandez Otxoaren dastaketa ikastaroa ematen.



Otsailaren bukaeran piztu zuten azken gerra, baina bazeuden martxan beste hainbat gerra munduan. Hauetako batzuk maiz daude hedabideetan beste batzuk aipatzen ez diren bitartean. Kontatu zein isildu, gerra guztietan jendeak ikaragarri sufritzen du. Zauritu edo hil, gosea, pobrezia eta bildurra. Min ikaragarria. Kaltetutako gehienak zibilak dira baina militarrek ere egoten dira tartean. Dena den, guzti guztiak pertsonak dira. Guzti guztiak gurasoak eta familia dauzkate.

Lehengo egunean, Gaintzako Felipek kontaktzen zuen duela urte batzuk Iranen egon zela. Mendian eta hirietan libre ibili zen taldean. Bertako jendearen etxeetan zein hoteletan egon ziren bai eta erakunde ofizialeetan ere. Ez zuten inon arazorik izan. Aurkitu zuten jendea oso atsegina zen. Hitz onak baino ez dauzka Iranen bizi eta ezagutu zituenentzat.

Ni neu hainbat aldiz egon naiz Estatu Batuetan eta hitz onak baino ez dauzkat jende eta bertako bizipenei buruz. Gertukoak zein kaleko jendea, beti oso jatorrak izan dira nirekin. Ez dut inoiz bertan arazorik izan libre mugitzeko zein edozein jendearekin egoteko. Nik ere, nire bizi-penetan oinarrituta, eskerrak eman nahi dizkiet bertakoei.

Geure gizarteetan, alde batetik jendea gaude eta bestetik gobernuak. Ni eta zu jende xumeak gara eta ezin ditugu erabaki politikoak hartu, baina guk egin dezakegu presioa ozenki esanez: "Pakea posible da, gerrarik ez!"



“Padelean jokatzeko hasi nintzenean ez nuen uste 65. postura iritsiko nintzenik”

Padelak hazkunde nabarmena izan du azken urteotan. Gero eta jokalaririk gehiago egin dute jauzi lehiaketa esparrura. Horietako bat izan da Josu Barberena Igoa, ibilbidean urrats azkarrak emanez, Nafarroako 65. postura iristea lortu baitu Lekunberriko jokalaririk.

Noiz hasi zinen padelean jokatzeko?

Hasieran lagunekin jokatzeko nuen, Lekunberri bi pista jarri zituzten unean. Ondoren, hamabi urtez egon nintzen jokatu gabe. Gerora, lagun batek Iruñean jokatzeko proposatu zidan eta oso kirol erakargarria iruditu zitzaidan.

“Hamabi urtez egon nintzen jokatu gabe”

hasi nintzen eta 8. mailan, nire bikotekidearekin batera, torneoak irabazten hasi nintzen. Orain, Nafarroako 2. mailan jokatzeko ari naiz eta taldekako torneoan lehenengo mailara igo ginen pasa den urtean.

“Nafarroako 2. mailan jokatzeko ari naiz”

Ba al duzu erreferenterik?

Alejandro Galan, Agustin Tapia, Iruñeko Jon Sanz, Aimar Goñi eta Martina Calvo. Profesionalak dira, eta asko jarraitzen ditut.

Zein izan da zure bilakaera?

Federatu nintzenean punturik gabe

Zer ekarri du zuretzat Nafarroako 65. postuan egoteak?

Padelean jokatzeko hasi nintzenean ez nuen uste 65. postura iritsiko nintzenik, urte bateko ikastaroa jaso bainuen. Horrek postu gehiago igozteko gogo sortzen dit. Hala ere, pozik nago.



Josu Barberena padelean. Argazkiak: Josu Barberena.

Zein izan da orain arte jokatu duzun partidarik bereziena?

5. Mailako finala irabazteak, 3. mailako finala jokatzeko eta partidurik gogorrenetako bat irabazi genuenean (1. mailako baten kontra eta 2. mailako onenatariko baten kontra), erraz irabazi genuen.

Zenbat entrenamendu egiten dituzu astean?

Ez dut entrenamendu zehatzik egiten. Egun, lagunaren artean partiduak jokatzeko ditugu, geroz eta maila handiagokoak; astean 3-4 egunetan, Iruñean, La Bandeja klubean.

Padelean lehiatzen ari zaren baita, zein da zure indargune nagusia?

Nire bikotekidea lagun bihurtu da, bioi asko gustatzen zaigu irabaztea eta une hartan sentitzen dugun poztasunean pentsatzeak ematen digu indarra. Hori bai, gaitzeari duxatu ondoren arte ez dugu asko hitz egiten.



Josu Barberena eta Patxi Santos. Lekunberriko 1. irabazleak.

Zein alderdi da garrantzitsuagoa zure ustez: teknika ala burua?

Burua gehienbat. Partida oso bat buruz ongi egotea ez da erraza. Tenisaren antzekoa da, amateur mailan pilota gutxi galtzeak emaitza asko ematen ditu. Baina maila altuago batean jokatu nahi badut teknika asko landu beharko nuke.

Nola ikusten duzu padelaren egoera Lekunberrin?

Lekunberrin pistak jarri zituztenean jende dexentek jokatzeko zuen. Orain, pistak okerrago daude; pasa den urtean txapelketa bat antolatu zuten eta zortzi bikote geuden bakarrik. Aurten antolatzen saiatu ziren, baina bikoterik ez zegoenez, bertan behera geratu zen. Pena handia sentitu nuen.

“Lekunberrin pistak jarri zituztenean jende dexentek jokatzeko zuen”

Zer falta dela uste duzu padela gehiago sustatzeko?

Batez ere pistak pixka bat egokitzea eta txapelketak antolatzea, mundu mailan



La Bandeja padel klubean, Copa Reynoko lehen mailara igo zirenean.

areagotzen ari den kirola baita.

Zein dira zure etorkizuneko helburuak?

Gehienbat ongi pasatzea, azkenean 33 urte ditut eta badakit antzeko postuan mantenduko naizela. Hala ere, Nafarroako 2. maila irabaztea gustatuko litzaidake, oso begiz jota dut. Horrek lehenengo mailan jokatzeko txartela emango lidake.

“Kirola egitea oso osasungarria da”

Zergatik gomendatuko zenuke padela?

Kirola egitea oso osasungarria da. Batetik, ezaugarri bereziena da 17 urteko mutiko edo neska batek, 60 urteko heldu baten maila berbera izan dezakeela. Bestetik, oso soziala da; lagun asko egin ditut padelaren ondorioz eta ia beti partiden ondoren, galtzen duenak garagardo erronda bat ordaintzen du.

Zerbait gehiago aipatu nahi duzu?

Jendea animatu nahiko nuke jokatzera. Kirol dibertigarria da, eta gustatuz gero maila polit bat hartu daiteke nahiko azkar.

LeKunBERRI
TABERNA

948 507 628
lekunberritaberna@gmail.com
C/ Aralar, 14 bgo.
31870 Lekunberrin
@Lekunberritaberna

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARMITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZEA

634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotalde 19,
Lekunberrin

MARTILLO TXIKI
PERKUSO ESKOLA

www.martillotxiki.com
679 938 016

Albaitaritza
baserritarren
zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Irurtzun
www.albaitaritza.com · 948 500 343



Nafarroako Orientazio Liga Iribasen.
Argazkia: Asier Elizalde.

Nafarroako Orientazio Liga herrikoia-aren bigarren proba jokatu dute Iribasen

Martxoaren 29an, Iribasen jokaturako orientazio proba, polita eta gogorra izan zen. Iragarrita zegoen eguraldiak ez zuen hutsik egin, eta probako lehen parte hartzaileak elur artean hasi ziren Iribaseko mendietan barna balizak aurkitzen. Eguraldia hobetzen joan ahala, ia 140 parte hartzaile hurbildu ziren, Larraungo iturburuaren inguruetan orientazioaren xarmaz gozatzeko. Nafarroako Kirol Elkarteak, hurrengo proba Aranzadin antolatuko du Maiatzaren 24an, eta berriro Lekunberri-Larraunera bueltatuko dira Azaroaren 1ean, Euskal Herriko Orientazio Kopa dela eta.

Seixasek erakustaldi ederra egin du Aralarren, Larraun eta Lekunberritik igarotako etapa ikusgarrian

Apirilaren 7an, txirrindulariek Lekunberri eta Larraun zeharkatu ondoren, San Migel Aralarrera igo eta Mendukiloko haitzuloan amaitu zuten etapa. Eguneko protagonista nagusia Paul Seixas frantziarra izan zen, Aralarko maldetan bakarka egindako erakustaldiari esker. Izan ere, etapa eskualdetik igaro ondoren erabaki zen, San Migel Aralarrera igotzean. Hala, helmugatik 26 kilometrora, Seixasek eraso jo zuen. Ondorioz, kilometro gutxitan aurkariak atzean utzi eta nagusitasun handia erakutsi zuen, eta frantziarrak eritmoari eutsi zion jaitsieran zein azken zatian. Horrela, Mendukilon garaipena lortu zuen.

Itzuliaren sailkapen orokorrean ere nagusitasun hori berretsi zuen, 19 urteko txirrindulari frantsesak lehenengo postua lortu baitzuen. Florian Lipowitz alemaniarra bigarren sailkatu zen, eta Tobias Halland Johannessen norvegiarrak hirugarren postuan amaitu zuen.



Paul Seixas Mendukiloko helmugara iristen.

PUBLIZITATEA MAILOPEN

Mailope aldizkaria

660 476 041 | info@mailope.eus

Trebetasuna

Bizitzak badu talentu nahikoa sinplea izateko, eta guk, nolabaiteko trebetasun berezia dena konplikatzen. Bizitzeko gure izatearen funtsa, etsaiak, gu geu. Esmatzen garen unetik akats, uste eta handikerietan galduak. Bitartean esnea mikrohuin-labean gainezka, kafea hotza eta txigorgailutik erre kiratsa.

Erantzun handiak, plan perfektuak eta seinaleztatutako bideak bilatzen ditugu obsesiboki, erlojuari begira denboraren esklabo, tik-tak konpultsiboan. Lasaitasuna susmagarria baltz bezala eta denek izan ezin duten zerbaite, irabazi beharreko zerbaite bezala. Eta hala ere, bizitza kontrakoan tematzen da. Sinpletasuna, erraza, zaratarik gabekoa. Arazoa da batzuetan ez dugula sinesten hori nahikoa izan daitekeenik, ez dugu sinesten hori merezi dugunik.

Guztiari zentzu eta zergati handiak eman nahi dizkiogu, direnari izaten utzi gabe. Zarena izateak espetxe zigorra balu bezala. Dena misterio sakon batean bihurtzeaz kezkatuak une oro denari musika eta distira jarritz, eta bidean bat edo beste itsutzearekin tematuz.

Eta hortxe dago gakoa, foku, mozerro eta makillajeak, esaldi filosofiko eta azpi titulu sakonaren bila, denbora azkar eta zurrun pasa da bizitzaren bila. Eta bizitzak, pazientzia eta dotoretasun osoz azkenean beste behin denborarik gabe utzi gaitu.

Egun gehienak aurrez idatziak eta protokolizatuak daude. Zarata itzali. Inprobisatutako keinu txikiak entzuten ikasi. Arrazoirik gabe barre egin, ezer ez egiteaz disfrutatu.

Araxes Herri Kirol Taldeko kadeteek 3. saria lortu dute Nafarroako Jokoetan

Martxoaren 29an, Iruritan, Araxes Herri Kirol Taldeko Kadeteek 3. postua lortu zuten Nafarroako kirol jokoetako konbinadan. Unai Ijurkok –tiratzaileen entrenatzaileak–, oso gustura aritu zirela adierazi du. Ijurkoren hitzetan, kirolarien helburu nagusia parte hartzea zen, baina saria lortzea pozgarria izan zen. Halaber, aurtengo kadeteen taldea osatzeko ere tiraka aritu dira, baina sariarekin aurrerapauso bat emateko balio izan zaie.

*Entzun elkarrizketa osorik Aralar Irratian: <https://labur.eus/prgspdnn>



Araxes Herri Kirol Taldeko kadeteak.

Raul Amatriain Arraizak eta Iñigo Lasarte Garciak irabazi dute Leitzako Herri Krosa

Jendetza elkartu zen apirilaren 18an Leitzan, Herri Krosaren 44. edizioa ospatzeko. Maila absolutuan guztira 211 lasterkaririk parte hartu zuten.

Lasterketa arratsaldeko 16:30ean hasi zen, eta lehenengoak 2023 eta 2016 urteen artean jaiotako haurrak izan ziren. Ondoren, gaztetxoak lehiatu ziren, eta azkenik, helduen txanda iritsi zen.

Helduen kategorian bi ibilbide zeuden aukeran: 5 kilometroko proba motza eta 10 kilometroko proba luzea. 5 kilometroko lasterketan, Raul Amatriain Arraiza uitziaz eskuratu zuen garaipena; 10 kilometrokoan, berriz, Iñigo Lasarte Garciak lekunberriarrak lortu zuen lehen postua.



Leitzako Herri Krosako irteera. Argazkia: Eneritz Iraola / Tipi-Tapa.



Begiratu noiz dagokizun

UMETOKI-LEPOKO MINBIZIA
GARAIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA



CECILIA



ELENA



JUDITH



ALBA

30, 35, 40, 45, 50, 55, 60 edo 65 urte badituzu, begiratzeko unea da.
Eta 25 edo 28 badituzu eta giza papilomaren birusaren
aurka txertatuta ez bazaude, ere bai.
Umetoki-lepoko minbiziari aurre har dakiok. **Begiratu. Zaindu.**



CAST



EUSK

PROGRAMA
DE DETECCIÓN PRECOZ
DE CÁNCER DE CUELLO
DE ÚTERO



UMETOKI-LEPOKO
MINBIZIA GARAIZ
DETEKTATZEKO
PROGRAMA

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



NAVARRA  **NAFARROA**

Una forma de funcionar | Our own way | Gaiuzak egiteko dugun modua

Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

Gain-haga

Uko itten saiatzen bagea re, erraietan iltzatuta dauzkuun zantzu kristauek oso presente dauzkuu eunerokoan. Ez da asko Aste Santue pasa dela, eta uko itte hortan “udaberriko oporraldi” esaten badiu re, ezin libratu prozesio ta penitentziat. Telebisioa piztea aski betikotuk dauden irudik ikusteko. Ben-hur o La pasión de Cristo; Balmasedako pasio bizidune; Segura, Hondarribi eta Andosillako pauso sinkronizatu eta mantallin beltzez tapatutako aurpegik; txano puntedun ta lurrañoako tunikak; kandelan argi eta isiltasun ittogarrri bat hausten duen danbor-hots hutsek; errauts hautsek eta kale beteak; pena, erruki eta damuzko intziri ta malkoak; arantzazko diadema eta oola aurpegin behera; bizkarra larrutu arteko soka-zaztak; ta eurrezko guutze haundi-haundiet ezin jasoz hanka-azpik urratzeaño eziñean dien gizaajoa.

Sekule ez dit pakeik eman nei elizek, ta holako koadroak ikusita are gutxio. Betidanik nerbiosa jarri izan nau fijo-fijo beitzeon jendeak. Ia begik klixkatu re in bare beitzen don jende klase hoi ez zait gustatzen. Ta halaxe beitzen due elizetako santu ta santa hoik denak: azpin dauzkuenan pekatu, damu eta oker guztik ikusi eta juzgatuko balittue bezala. Denok baitamakiu gure guutzea, aizue! Motxila esaten zaio oain, erraietan iltzatutako beinkazio hoitatik ezin libratuz gailtzen garai moderno hotan. Denok omen gure motxila, gure guutzea. Denok gure gain-haga.

Motxilak o eurrezko guutzeak bezainbeste o gehio estutzen batto re gure gaiñeko zamak, nik askoz nahio gain-haga. Atzendu nahi ez hortan nostalgiaz beitzen diun bizimodu hartako hitze. Gurdie belarrez o garoz bete-bete in eta izpi guztik etxeako birean prozesioan galdu ez zitzezen, gainean jartzen zen eurrezko haga da gain-haga. Aurreko ezpatean lotu aurrena eta geo atzeko ezpatean ahalik ta zuloik estunean burnie sartzeko txintxilike jartzen zeen, baita etxeo umeak re; nahiz ta hain kargak ez zuen asko beheratuko haga, hue zen jolasa!

Urteroko pelikula, antzezlan o dena delako izan; udaberriko oporraldi, prozesio o penitenti esan, ez ziñuke motxila damuz gehiei bete behar, pekatari! Ez estutu gehiei bizkar gaineo gain-haga, gal dattezela oker izpietuk birean, gurutziltzatuk bizitza kondenatukou bestela geon burue. Amen!

Juan Gorriti Araxes ikastetxean



Gorriti argazkiei begira.

Martxoaren 20an, ostirala, udaberriko lehen egunean, Juan Gorriti artzain, eskultore, zurgin eta margolaria, eta bere emaztea, Txaro Garate, eskolara etorri zaizkigu.

Ikas Komunitatea garenetik, ikasturtero, aukeratutako artista esanguratsuren baten biografia, ibilbidea, lanak etab. oinarritzat hartuz Tertulia Artistikoa egiten dugu.

Aurten, nola ez, Juan Gorriti aukeratu dugu, aspaldiko urtetan Korrikan eskuz esku dabilen lekukoaren egilea, besteak beste.

Ez da gaurkoa berarekin dugun harremana. Hamaika aldiz joan gara bere etxera eskolatik, txikienekin artelanak egitera, bere artelanak ikustera eta bera elkarrizketazera. Eskolara ere etorri izan zaigu. Beti ilusioz, esku zabal, alai, goxo, xalo, bihotzez hartu gaitu, denon irrifarra sortaraziz. Gaurkoan ere bai!

Eguraldi eguzkitsuarekin, eskolako

aldapatxoa igo eta sarreran irrifartsu begiratu dio bertan ikusgai dugun KORRIKako ibilbidearen mapari eta lekukoarekin agertzen den argazkiari.

Segidan, liburutegian ikasleak, opor aurreko Jolas Kooperatiboetarako egin ditugun adin guztiak nahastuta sortutako taldetxoetan sartu eta katu dira beraiei begira, adi-adi.

Beraiek, haur guztiak horrela ikusita, txundituta eta emozionatuta, ilusioz gainezka jarri dira. Gorritiren ahotik horrelakoak entzun ditugu eten gabe: "Hau da marabilla", "zoragarria", "hauek dira artistak", "oparia", "loteria"...

Sartu orduko irakasleak aurkeztu dira, zeintzuk ziren eta nongotarrak jakin nahi baitzuten.

Hasteko, Gorritiri buruzko dakiguna

pausoz pauso gogoratu dugu eta berak lagundu digu esandakoa egokitzen eta osatzen. Ez dira faltatu bere "xelebrekeriak" eta naturaltasuna, denon irrifarra sortuz.

Kontatu diguna labur esanda:

- ▶ Oderitzen jaio zen, uztailearen 7an, 7. semea. Aita basozaina izanik natura, baserria maitatzen ikasi zuen; eskola ez zuen gustuko eta kanporatzen zutenean ihes egiten zuen. Hor hasi zen bere lehen egurrezko artelanak egiten.
- ▶ Zurgin lanetan ari zela, Jorge Oteiza eta Remigio Mendiburuarekin asko ikasi zuen eta beraiek animatu zuten bestelako lanak egitera. Artista asko pasa da bere etxetik: Mikel Laboa tartean.
- ▶ Berak naturak eskaintzen duen edozer: egurra, altzairua, margo akrilikoak, hezurak,denak uztartu ditu. Bere helburua: "Barneko umeari aske uztea" nahi duena adierazten.
- ▶ Beraien etxea beti zabalik egon da edozeinentzat: -Eskale bat etortzen bazen, berarentzat ere tortiltxo bat edo zerbait, noski!- dio Txarok. Horrela zientoka lagun dituzte. Oso maitatuak dira, nola ez!
- ▶ Harreman estua dute aspaldidantik Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin. Kanta bat ere egin zioten eta berak beraien furgoneta marraztu eta margotu zuen.
- ▶ Erakusketa ugari egin ditu, Euskal Herrian, Parisen, Bartzelonan, Madrilan, Alemanian, Galesen... Donostian, San Telmo museoan, Miramar jauregi aurrean... Azkenekoa 2019an, Uztegiako Azkue parajeon "Gaztari Erakusketa". Bertan artistak, musikariak, kirolariak, dantzariak, abeslariak, pailazoak, bertsolariak, eskolameak, ahuntzak...elkartu ditu.



Gorriti eskolan.

Hurrek adi-adi entzun dituzte denak. Harrituta gelditu dira 510 urte dituela dioenean, "errebeldea" izan dela esan duenean. Berari debekatuz gero indarra sortzen zitzaiola berea egiteko (behin karretera marraztu zuela, adibidez); jotzen zuten irakasleei egindako trikimailuak; dena margotzen zuela: motoa, arropa, oinetakoak, hormak... ez duela erlojurik izan baina "denbora" bai; aske izan dela, nahi izan duena, gustatzen zaiona, nahi duen erritmoan egin duela beti bere bizitzan zehar... Autentikoa, benetan!

Hau dena bere inguruko laguntzarik gabe ezinezkoa izango zela ere esan digu: Bere emaztea Txaro, semea Jontxu, Gailur, Gaintzako Mixtone-

koak, etab.

Bai berak, bai Txarok, txundituta begiraten zieten aurrean zituzten haur eta irakasleei. Ez da harritzekoa! Beraiek, herrietako eskolak Betelun elkartu zirenean, euskara eskolan debekatuta zegoen garaian, semeak eskola euskaraz jasotzea nahi zutela argi zutenean, lan itzela egin behar izan baitzuten, beste guraso batzuekin batera, lortu ahal izateko. Hori bai, dena beraien kontura! 1976an Arribeko Iturgaitzen, bertan bazkaltzen zutela, zonaldeko 8 hurrek lortu zuten. Ez dituzte ahaztu ez, egindako saiakerak eta jasotako erantzunak.

Gaur egun horrelako eskola, horrelako irakasleak eta euskaraz ikasten dutela ikusirik hunkitu egin dira!

Hitz egin bakarrik ez dugu egin, ez horixe. Argazki batzuk ikusi ditugu elkarrekin (aspaldikoak eta ez hain aspaldikoak berarekin) eta ikasleek asmatutako sasi-bertsoak ere kantatu dizkiegu, gure esker ona adierazteko.

Bukatzeke, Korrika hemendik pasatzen den egunean, eskolan eramango duen pankarta eskaini diogu, berak bere marrazki eta mezuen bidez, osa dezan eta gogotsu aritu da. Marrazki batzuk ere ekarri dizkiugu hurrei oparitzeko, beti bezala. Amaitutakoan, denak elkartu eta argazkia egin dugu eskolako patioan!

Horrela joan da gaurkoa, tarte go-goangarria, ahaztezina denontzat!

Gora Gorriti! Gora Txaro!

Gora euskara eta euskal eskola! Gora haurrak! Gora askatasuna!

Gure "filosofoak" dioen bezala: "SENTITU, PENTSATU eta EKIN" eta urte askoan jarrai dezala bere lekukoak pausoz pauso, eskuz esku Korrikarekin!



Sasi-bertsoen aurkezpena. Argazkiak: Araxes Ikas Komunitatea.

TALLERES GOÑI TAILERRAK

TALLERES GOÑI CHAPA Y PINTURA

- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM

ALdea dago!

Aurki itzazu bi loreen artean dauden aldeak. Hamahiru dira guztira.



Dadua



Zortzi dado haueetatik lau irudi zabalduarekin bat datoz, eta beste laurak ez. Zeintzuk dira zuzenak eta zeintzuk okerrak? Asmatzea zaila bazaizu, ebaki irudi zabaldua eta muntatu. Aise bereiziko dituzu.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



ZUHUR HITZA

Hizki-marrazki alfabetoari jarraikiz, eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia, eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



▶ AGENDA

MAIATZA

- 1- 19:00 Kontzertua: Gwilym Bowen Rhys (musika galestarra). Kantina (Lekunberri).
- 5- 18:00 "Meriendas de Cine". Gizarte Etxea (Lekunberri).
- 6- 17:30 Bilera: Araitz eta Beteluko Agenda Feminista. Araitz eta Beteluko Berdintasun Mahaia antolatua. Araizko Udaletxea.
- 8- 17:30 Hegaztien Eratzuntze Zientifiko Hastapen Ikastaroa I. Antonea (Lekunberri).
- 9- **Ibarberri Ikastetxeko Festa.**
09:30 Hegaztien Eratzuntze Zientifiko Hastapen Ikastaroa II. Antonea (Lekunberri).
09:30 Sendabelarren inguruko ikastaroa I: Txangoa. Alli (Izena eman Kultura Sailean maiatzaren 4a baino lehen).
- 15- 19:00. Arg(h)itzen dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia. Gabari Gune Irekia.
- 16- **Aralar Irratiaren 35. Urteurrena.**
Solasaldia eta bazkaria.
10:00 Sendabelarren inguruko ikastaroa II: ukenduak egiteko tailerra. Alli.
17:00 Euskaraz bai! Haurrentzako tailerrak. Arruitz.

- 17- Latxa arrazako ahari genomikoen V Enkante Ofiziala & Mendialdeko Azoka Ibiltaria & Landare eta Loreen Azoka. Lekunberri.
18:00 Zineclub. Lekunberriko Udaletxea.
- 22- 19:00 Antzerkia: "Aranburugoiarrak", Xabier Artieda eta Lorena Arangoarekin. Mugiro.
- 28- Nafarroako Itzuliaren etaparen amaiera Oderitzen.
- 29- Kirol Eguna. Plazaola Kirolgunea (Lekunberri).
Arratsalde. Aralar Udala Musika Eskolaren kontzertua. Kantina (Lekunberri).
- 30- 09:00 EMAN programa I (Astiz-Irujo Fundazioa) Autokarabanan gunea (Lekunberri).
- 31- Ttuturreren Mendi-irteera. Saioako mendiak: Lantz - Basajaun Leizea - Iturrondo - Xuriain - Sabaiandi - Kedarbe - Lantz.

EKAINA

- 5- "Printzak 7 urte": kontzertuak
22:30: Borla + Orsini.



POSTONTZIA

- ✓ *Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?*
- ✓ *Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?*

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: 660 476 041 telefonora deituz edo Whatsapp bidez idatziz.

Maiatzak 30

ARAITZ- BETELUKO EGUNA

09:00

Goiz soinua txistulariekin

10:30

Umeen pilota partidak Arribe-Atalluko frontoian

11:30

Herrietako kuadrillen arteko jolasak

12:30

Dantzari txikien saioa

Ondoren, Bermuta fanfarreak alaiturik

14:00

Bazkaria

Ondoren, zuzeneko bingo musikatua

18:00

21:30

Erromeria '6etzi' taldearekin